

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4983

187/2020 EBAZPENA, azaroaren 4koa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Osakidetzako Arabako Osasun Mentaleko Sarean Gainbegirale (Psikiatria) lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.

Arabako Osasun Mentaleko Sarean gainbegirale (Psikiatria) lanpostu bat hutsik dago. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen aske bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta lanpostua jabetzan izatea B1 lanbide-taldean.

b) B1 lanbide-taldeko titulazioa izatea.

c) Gutxienez 3 urteko lanbide-esperientzia B1 lanbide-taldean.

d) 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako betekizunak.

2.– Kontuan hartu beharreko merezimenduak.

a) Erizaintzako Unitateen Kudeaketako esperientzia eta/edo prestakuntza.

b) Esperientzia taldeen eta pertsonen antolaketan eta kudeaketan.

c) Errehabilitazio Psikiatriko Funtzionaleko Eremu bat antolatzeke eta kudeatzeko proiektua, bai eta haren defentsa ere.

d) Osasun mentaleko espezialitatea izatea.

Interesgarritzat jotzen diren eta lanpostua betetzeari balioa eransten dioten merezimendu guztiak aurkeztu ahal izango dira.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta hori garatzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera baloratuko da.

4.– Eskabideak aurkezteko epea.

Interesatuek Osakidetza-ko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Pertsonen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Araba kalea 43, 01006 Vitoria-Gasteiz). Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan ere aurkeztu ahal izango dira.

Interesdunek datu pertsonal guztiekin batera aurkeztu beharko dute eskabidea, Arabako Osasun Mentaleko Sareko Pertsonen Zuzendaritzan dokumentatutako curriculum vitae-arekin batera (Araba kalea 43, 01006 Vitoria-Gasteiz). Agiriek honela egon behar dute:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionarioen edo estatutupeko langileen izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratudun langile finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agirien fotokopia konpultsatua.
- d) Kontuan hartu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazitako moduan egiaztatzea CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta agertzen diren alderdiak, nahiz eta hori izangaiaren eskabidean jaso beharko den.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak baloratzeko, eta hautagaiei jakinaraziko zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, izangaiei jakinaraziko zaizkien eginbide osagarriak egitea erabaki ahal izango du.

Izangaien balorazioa egin ondoren, proposamena egingo da, izendapena formalizatzeko. Epai-mahaiak, txosten arrazoitua egin ondoren, eman gabe uztea proposatu ahal izango du, izangaiek ez badituzte eskatutako baldintzak betetzen.

Batzordearen bilkura bakoitzaren akta egingo da. Bertan, honako hauek jasoko dira: aurkeztutako izangaiak, egindako eginbide osagarriak (baldin badaude), eta lanpostua horietako bati esleitzeko edo, hala badagokio, deialdia hutsik uzteko kontuan hartu diren arrazoiak.

6.– Hautaketa-prozedura.

Inola ere ezingo dira merezimendutzat hartu deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean aurkezten ez direnak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

Hemen hasten den prozedura (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea) Osakidetza-ko Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen ebazpenaren bidez amaituko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bai eta Osakidetza-ko intranetean eta webgune korporatiboan ere.

Ebazpen horrek EHAA-n argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, bertan besterik xedatzen ez bada.

2020ko azaroaren 19a, osteguna

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsiak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsia aurkez dakiok Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 4a.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea,
EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE.